ArtBITE

Arte Teknologiko eta Performatiboa. Arte Tecnológico y Performativo

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBER 17-20

2026. BIZKAIA ARETOA EHU. Abandoibarra Etorb., 3

Beate Linne, Alessandra Eramo, Hong Shu-ying, Daffa Mangussara, Josu Rekalde, Maria Knafl & Lucía Leirós, Juan Miguel Cortés, Alberto Moya González, Carlos Gil Santa Eugenia, Raisa Raekallio & Misha del Val, HUMA Artists Group (PazTornero, Mikel Arce, Jaime Munárriz y Raúl León-Mendoza)

ARTE EDERREN FAKULTATEA

EHU

MEM

(blank) SOUTH EAST ASIA EXPERIMENTAL FILM FESTIVAL

Bizkaia Aretoa EHU
Azaroak 17, asteartea. 17etan, inaugurazioa Alessandra Eramo
Azaroak 20, ostirala. 19etan, finissagea Beate Linne

Beate Linne, Alessandra Eramo, Hong Shu-ying, Daffa Mangussara, Maria Knafl & Lucía Leirós, Juan Miguel Cortés, Alberto Moya González, Josu Rekalde, Carlos Gil Santa Eugenia, Raisa Raekallio & Misha del Val, HUMA Artists Group (Paz Tornero, Mikel Arce, Jaime Munárriz y Raúl León-Mendoza). Komisario: Txema Agiriano

Bizkaia Aretoa EHU, azaroak 17. 7PM

Alessandra Eramo
(Alemania/Italia)

Foto: © Camille Blake

Alessandra Eramo Berlinen bizi den soinu-artista eta abeslari bat da. Haren lanak performancea, soinu-poesia, bideoa, marrazkia eta instalazioa barne hartzen ditu, ahotsaren eta zarataren lurralde akustiko ezkutuak gai soziopolitiko gisa esploratzeko. Gorputzari, oroimenari eta ekologiari buruzko galderak jorratzen dituzten arte-proiektu multimedia eta emanaldiak garatzen ditu. Ahotsarekin duen arte bereziagatik txalotua, nazioarteko musika-jaialdietan, arte-museoetan, galerietan eta irratian bere lanak erakutsi eta emanaldiak eskaini ditu. Corvo Records zigiluaren sortzaileetako bat da, eta Berlingo Errant Sound proiektu-guneko kidea.

WEBGUNEA: www.ezramo.com

Ahotserako eta Elektronikarako Bakarlana
Ahotsean zentratzen da Alessandra Eramoren zuzeneko emanaldia, eta ahotsak zaratarekin eta ingurunearekin duen harremanean. Soinu-paisaia hipnotikoen collage batean zehar, soinutik harago jotzen du, adierazpen poetikoan barneratuz. Beatboxa, mihi-klikak, garrasi zorrotzak, txistu-hotsak: Eramok kantuaren baitako trantze-egoerak esploratzen ditu ahots-teknika hedatuen, ahoskatze ez-berbalen, zarata gordinaren, melodien, distortsioaren, hitz zatikatuen eta hizkuntza ezezagunen bidez, landa-grabazioak, atzeraelikadura, zuzeneko laginketa eta aurrez grabatutako soinu-materiala txirikordatuz. Soinu-poesiaren oinarritik abiaturik, emanaldiak esperientzia akustiko murgiltzaile bat sortzen du, entzuleekin partekatutako erritu bat.

BIDEORAKO ESTEKA:
https://www.youtube.com/watch?v=Zzkdqh5b-uM&time_continue=1&source_ve_path=NzY3NTg&embeds_referring_euri=https%3A%2F%2Fezramo.com%2F

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa
Raisa Raekallio & **Misha del Val**

Raisa Raekallio (Kittilä, Finlandia, 1978) eta Misha -Enrique- del Val (Bilbao, 1979) artista bikoteak elkarrekin bizi eta lan egin du margolanetan, marrazkietan, performanceetan, komisariotza proiektuetan eta podcastetan 2013az geroztik, Finlandiako Lappiko Sirkka herrian.

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa

Josu Rekalde “Lerro bat ez da zerumuga”



Lerro bat ez da zerumuga

---------- Lerro bat ez da zerumuga --- una línea no es el horizonte --- a line is not the Horizon --- une ligne n´est pas l´horizon --- eine Linie ist nicht der Horizont --- 線は地平線ではない ---一條線並非地平線。--- una linea non è l'orizzonte --- uma linha não é o horizonte --- линия — это не горизонт ----------

Josu Rekalde-Izagirre. (www.josurekalde.com)

Josu Rekalde (Amorebieta -Bizkaia- 1959) diziplina anitzeko sorkuntza artistikoak egiten dituen euskal artista da, bideo esperimentala eta instalazio eskultorikoa teknologia berriekin konbinatuz. Bere auzolandegia zabala da, baina bere alderdirik ezagunena bideoarekin, soinuarekin eta teknologia berriekin zerikusia duena da. Lantzen dituen gaiak intimismotik harreman sozialera aldatzen dira, Nitik Bestera, metalinguistikotik narratibora. 2020ra arte, sorkuntza artistikoa eta irakasle lana uztartu zituen Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Arte Ederretako fakultatean.

Soinuaren eta ekintzaren arteko harremana ikertzen du, eta soinuaren inguruko praktika artistikoei buruz hausnartzen du, baita soinu-ekintzaren gaitasun performatiboari buruz ere. IKERSOINU ikerketa-taldeko kidea da

https://www.rtve.es/play/videos/metropolis/josu-rekalde/6907120/

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa
Alberto Moya González “Sound box”

Sound box (2026) izenburuko proiektu hau Soinu
Artea ikasgairako egina da, Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboa Masterraren (AGTP) barruan, Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU).
Proiektuak Luigi Russoloren *Intonarumori* (1913) izeneko piezak ditu oinarri,
zarata akustikoak sortzen zituzten kutxek osatuak.
Soinu-zarata desberdinak sortzeko eta kontrolatzeko dinamika bat errazten zuen horrek,
soinu esperimentalak sorraraztea eta soinu-lengoaia berriak konfiguratzea helburu.

Egurrezko kutxa batek osatzen du proiektua.
Lau biradera ditu, eta zenbait objektu barruan, publikoak berak
piezarekin elkarreragin dezan, sorpresarekin eta emozioarekin esperimentatzeko jolasean,
biradera horietako bakoitzari eraginez eta kutxa barrutik sortutako
zarata entzunez.

Bizkaia Aretoa EHU, azaroak 17. Asteartea
Asiako hego-ekialdeko zinema esperimentalaren jaialdiko bideoak **(blank)**
Programatzaileak: Gabriel Goh, Raey Ang

Hong Shu-ying *on telling time at the mall* Singapur 10’38”

Sinopsia: merkataritza-guneetan ordua adierazteko moduak esploratzen ditu lan honek; zehazki, Queensway Shopping Centren: jabetza horizontaleko eraikin bat, Singapurreko merkataritza-gunerik zaharrenetakoa. Landa-grabazioak, aurkitutako metrajea eta behaketa hutseko klipak konbinatzen ditu artistak, denbora eta espazioa dokumentatzeko, denbora neurtzearekin dugun harremana aztertuz eta zikloei, aldaketari eta errepikapenari buruz hausnartzera gonbidatzea helburu.

Zinemagilearen biografia: Hong Shu-ying 方舒颖 artistak irudiak eta istorioak metatzen ditu gauzak nola ikasten eta transmititzen diren ulertzeko. Haren praktikak irudi mugikorrekin, estanpatuekin eta material inprimatuarekin lan egiten du, zirkulazioan dauden irudi, notazio eta bestelako lan-dokumentu herrikoietatik abiatuta. Bakarkako erakusketak egin ditu, eta bere herrialdeko zein atzerriko erakusketa eta jaialdietan parte hartu du. Gaur egun, Singapurreko Arte Museoan egonaldi bat egiten ari da.

Programatzaileen oharrak:
Lan honek ezin hobeto kapsulatzen ditu Singapurreko merkataritza-guneen klaustrofobia eta Singapurreko bizitzaren erritmo eroa. Baina dokumental esperimentalaren begiradatik ikusten da hori, eta Singapurreko merkataritza-gune zaharren denbora-kapsula ere bada, gure aroaren ikuspuntutik egina, eraispenaren eta hirigintza-garapenaren ondorioz laster galduko diren honetan. Pantailan gozatu Singapurreko hiri-historiaren xafla honetaz.

Daffa Mangussara “Pesse” Indonesia 5’1”



Synopsis: What does a family sound like when everything looks right? Beneath the image of a household praying together, sounds of sin and innocence emerge and collide until what was never spoken becomes the loudest thing in the room.

Filmmaker’s Bio: Daffa Mangussara is a Directing graduate of the Jakarta Institute of Arts. His work confronts what people collectively choose to look away from. Working across experimental and narrative forms he is drawn to subjects that exist in plain sight yet remain unspoken. His approach treats sound and image as independent layers that can contradict and interrogate each other.

Programmers’ Notes:
When it comes to experimental filmmaking, often we see films lean in one direction of being heavy on the experimentation of the form of filmmaking, or to encapsulate an entire emotion in one film. This film is a rare example of both, and goes a step further to take you on a ride of emotions rather than just exploring a singular feeling in depth.

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa

Maria Knafl y Lucía Leirós “Nero”

Zeramikazko instrumentuak sortzea ikertzen duen lankidetza-proiektua, ur-txirulan, *huaco* txistukarietan eta hainbat sistema akustiko esperimentaletan inspiraturik. Forma sinpleak eta hodiak —urarekiko konexio industrialeko egitura gisa— abiapuntu hartuta, jo eta aktibatu daitezkeen dispositibo modura pentsatutako piezak diseinatu dira, zeinetan urak eta aireak osatzen baitute soinua. NERO izenburua jatorria νερό /neró/ hitz grekoa da, “ura” esanahia duena. Ura bitarteko gisa dago hemen, airearen eta soinuen garraiobide gisa.
Proposamen interaktibo eta kolaboratibotzat erakusten da lana. Ez da multzo itxitzat aurkezten, baizik eta jarraipenera eta esperimentaziora gonbidatzen duen prozesu irekitzat.
Publikoa ez da ikusle hutsa, baizik eta parte-hartzailea: piezei eragin, haiek probatu eta nola erantzuten duten deskubritu dezake. Soinua gorputzaren mugimendutik, arnasetik, ukitzetik eta, askotan, hainbat pertsonaren aldibereko parte-hartzetik sortzen da.
Multzoak, horrela, eskultura sozial gisa funtzionatzen du: funtsezkoa du dimentsio kolektiboa.
Pieza batzuek interpretatzaile bat baino gehiago behar dute aktibatzeko. Horrenbestez, esperientziaren parte bihurtzen dira elkar entzutea eta koordinazioa. Ez dago soinu-emaitza finkorik, ezta espektatiba zehatzik ere egin behar duen soinuari dagokionez. Aldakuntza, akatsa, deskoordinazioa eta isiltasuna onartzen dira, prozesuaren parte gisa. Soinua, obraren ikuspegitik, harremanean eta denbora errealean eraikitzen da, hura habitatzea eta martxan jartzea erabakitzen duenaren arabera.

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa

Juan Miguel Cortés, Juanmi. *Huidobroren bila Nº25 (Oroimenari)*.

Juan Miguel Cortés, Juanmi. Sestao, 1969. Arte Ederretan lizentziatua eta bizitza osoan artearen ingurumarietan trebatua. Eszenografoa, maketagilea, kartelgilea, dekoratzailea; hori guztia lehiaketekin, erakusketekin eta sorkuntza artistikoarekin nahastuta. Txikitatik zituen hatz urduriak eta begirada berezia. Baina helduaroan eman dio amain bere sormenari, erabiltzen ez diren elementuak eta materialak berrerabiliz eta haiei bizitza berria emanez. Fakultatetik atera zenetik, lan-bizitzarekin uztartu ditu proiektu artistikoak, eta gaur egun garatzen ari dena gailentzen da haien artean: *Huidobroren bila*.

Huidobroren bila proiektua.

1931n, Vicente Huidobro poeta txiletarrak *Altazor* poema argitaratu zuen. Bide berri ugari ireki zizkion harekin poesia modernoari, eta kreazionismoaren aitatzat hartu zen harrezkero. Juan Miguel Cortés, Juanmi, duela 14 urte hasi zen haren bertsoak lapurtzen bere sorkuntza artistikoetan, instalazioetan, performanceetan eta bideosorkuntzetan erabiltzeko. Juanmiren lanen ezaugarriak dira bertsoen hautaketa haien kokaleku izango den espazioaren eta tematikaren araberakoa izatea, eta jada erabiltzen ez diren merkataritza-errotuluetatik berreskuratutako letra gorpuzdunak erabiltzea.

Huidobroren bila Nº25 (Oroimenari).

Lan hau inkonformismoaren eta oroimenaren aldeko aldarria da, eta MEM Jaialdiak bere 25 edizioetan egin duen lanaren gorazarre bat ezkutatzen du. Eraikinaren fatxadatik zintzilikatutako burdinazko egitura baten gainean eraikita dago lana. *Altazor* poemaren bertsoak letra gorpuzdun berreskuratuetan ematean, letrak atzetik argiztatzen dira, halako pizte-ziklo baten arabera non apurka geratzen baitira agerian testuak gordetzen dituen sekretuak. Lan hau ez da erakusketa-inguruan bakarrik gozatzen; gainerako hiriari ere irekitzen zaio.

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa

Alberto Moya González “Sound box”

Soinu Kutxa (2026) da EHUko Arte Garaikide, Teknologiko eta Performatiboko Masterreko (ACTP) Soinu Arte ikastaroaren proiektu honen izenburua.

Proiektu hau Luigi Russoloren Intonarumori (1913) lanean oinarritzen da, eta honek zarata akustikoak sortzen zituzten kutxez osatuta dago. Horrek soinu-zarata desberdinak sortzeko eta kontrolatzeko dinamika bat bultzatu zuen, soinu esperimentalak sortzeko eta soinu-lengoaia berriak konfiguratzeko.

Proiektua egurrezko kutxa batez osatuta dago, barruan objektu desberdinak dituzten lau biradera dituena, publikoak piezarekin elkarreragin eta harridura eta emozioa bizi ahal izan dezan biradera bakoitza biratuz eta kutxaren barrutik sortutako zarata entzunez.

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa
Carlos Gil Santa Eugenia



Laugarren makina. Trantsizioa (Kepler eta Brahe udazkeneko igande arratsalde batean)

Norbanakoa bere bizitzan aldaketa itzulezinak gertatzen ari direla jabetzen den segundo labur horiei heltzen saiatzeari buruzkoa da *Trantsizioa*. Gure oroimenean betiko dauden uneak, bestelako espazio-denbora batean ere berdin sentitzen direnak, nahiz eta logikak esan ez dela horrela, ez dagoela atzera-bueltarik…
Dispositibo honetan, une horien kontakizuna egiten dut, Marteren atzeranzko mugimendua, ilunabarreko argia eta esan gabeko hitzak oinarritzat hartuta.
Trantsizioa eta aldaketa.

Argazkilaria, argazki-zuzendaria, dispositibo-eraikitzailea.
Oroimena ardatz narratibo gisa, izan erreala, izan idealizatua: horra proiektuak birarazten dituen funtsa.
Errepikapenak dira tresna narratiboak, sortzen diren begiztak, fikziozko espazio bat erakusten dutenak, kanpokoa izan edo barnekoa izan; ihes egiteko modu bat…

Zentzu teknikoan, proiekturako eraikitzen da makina. Makinetako bakoitza bakarra da; bere baliabide narratibo propioak ditu.
Haietako bakoitza nork bere burua ulertzeko bilaketa pertsonal bat da.

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa

HUMA Artists Group (Paz Tornero, Mikel Arce, Jaime Munárriz y Raúl León-Mendoza)

HUMA Artists Group diziplinarteko plataforma bat da, zenbait unibertsitate eta testuinguru kulturalekin lotutako artista ikertzaile eta zientzialari multzo batek osatua. Artearen, zientziaren, teknologiaren eta gizartearen arteko bidegurutzean dago taldearen praktika, eta ikerketa artistikoko proiektu, ikus-entzunezko instalazio murgiltzaile, soinu-konposizio, performance eta argitalpenen bidez gauzatzen da. Metodologia transdiziplinarrek aukera ematen diote taldeari fenomeno, material eta datu zientifikoak ikusizko eta soinuzko esperientzia nola bihurtu esploratzeko, honako gai hauen inguruan: sistema naturalak, paisaiaren eraldaketa, datuen bistaratze eta sonifikazioa, bioteknologia eta organikoaren eta teknologikoaren arteko harremanak.

Haien azken proiektuen artean *Emissions* dago, Alacanteko Arte Garaikidearen Museoan (MACA) aurkeztutako ikerketa artistiko bat, DNA plasmidikotik eta GFP proteina fluoreszenteetatik abiatzen dena informazio molekularra eraldatu eta ikusizko eta soinuzko egitura bihurtzeko. DNAk materia sortzaile gisa jokatzen du, prozesu biologikoak ikus-entzunezko sorkuntzaren eremura eramanez.

Ondoren, Vostell Malpartida Museorako diseinatutako *Horizon: Crossing Terra, Aqua and Caelum* lanak ikus-entzunezko instalazio murgiltzaile bat eta performance bat aurkezten ditu. Lurraren, uraren eta zeruaren arteko harremanak artikulatzen dituzte, irudia, soinua eta energia baliatuz. Lanak energia biltzeko sistema bat du, zeinaren seinaleak, prozesaturik, ikusizko eta soinuzko material bihurtzen baitira, lurraldearen, datuen, pertzepzioaren, zientziaren eta teknologiaren arteko elkarrizketa batean

Bizkaia Aretoa EHU. 17 – 20 Azaroa
Mikel Arce
“*Haizeguzkierrota*”

Egitura honek bi hegaleko eta ardatz horizontaleko aerosorgailu eoliko gisa funtzionatzen du kanpoaldean. Sistema hibrido horretan, beso banatan finkatutako bi panel fotovoltaikoak
aire-masak bultzatutako hegal birakari gisa aritzen dira zuzenean,
eguzki- eta haize-energia elektrikoa aldi berean sortuz eta datuen denbora errealeko transdukzioa
eginez. Etengabean biratzearen kondizio horrek, grabitate-kargak eta bultzada estatikoa ez ezik, eskakizun dinamiko zorrotz hauek ere ezartzen dizkio euskarriari: hegalen indar zentrifugoa.

Bizkaia Aretoa EHU azaroak 19 19etan

LUPI argitaletxearen liburu aurkezpena

“Searching for Huidobro” Juan Miguel Cortésen proiektu artistikoa da.

“Bilboko itsasadarrean bidaia bat...” Txema Agiriano

https://www.anti-web.com/es/libro/buscando-a-huidobro_45051

Un viaje por la ría de Bilbao a través del hazlo tu mismo y el arte de los nuevos medios

Txema Agiriano

Oroitzapenen, anekdoten eta gertaeren bidez, liburu honek DIY mugimenduaren eta 1980ko hamarkadako Bilboko smog eta kutsaduraren artean sortu zen arte teknologiko eta performatiboaren zati bat eta XXI. mendeko Bilbo garbi eta teknologikora eraman zuena agerian uzten du. MEM, Musica Ex Machina jaialdia, istorio honen parte da.

20 nov viernes 19etan Bizkaia Aretoa EHU

Finissage

Beate Linne (Alemania) “Task-based Performance”

Beate Linne performance artista da, Alemanian jaioa 1967an. Arte Ederrak, Arkitektura, Pedagogia, eta Alemaniar hizkuntza eta literatura ikasi zituen Kassel-eko Unibertsitatean, Hildesheim-eko Fachhochschule-an, eta hiri bereko unibertsitatean. 2007tik aurrera emanaldiak egin izan ditu Europan eta Asian. Gainera, tailerrak ere eman ditu, eta arte jaialdiak antolatu. Bere gorputzarekin sortzen dituen zuzeneko ekintzen bitartez, bizitzarekin eta pertsona izatearekin lotutako arazo zentralak ikertzen ditu Linneren lanak.